

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak gogora ekarri du administrazio publikoetako langileen gastuan aurrezteko dagoen beharra

*Lehendakaria Afapna funtzionarioen sindikatuko 7. bilkura orokorraren itxiera-ekitaldian izan da*

Jueves, 26 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gogora ekarri du administrazio publikoetako langileen gastuan aurrezteko dagoen beharra Foru Komunitateko funtzionarioen [Afapna](#) sindikatuko 7. bilkura orokorraren itxiera-ekitaldian egindako agerraldian. Ekitaldia ostegun honetan burutu da Iruñeko hotel batean.

Bere agerraldian, Nafarroako Lehendakariak ikusi du "gure Parlamentuan, udaletan eta erakundeetan errealitateari uko egiteko joerari eusten zaiola eta aurrekontuen doikuntzak aurkezten direla gobernatzeko ardurak ditugun borondatezko erabaki gisa". Jarraian, zera eskatu du: "Izan gaitezen zintzoak eta aitor dezagun ez dagoela makil magikorik ez hemen ez eta Euroguneko herrialdeetan ere. Aitor dezagun, ekonomia dinamizatzen ez den artean, kredituak proiektu aldakorretan ez dauden artean, lanpostuak sortu artean eta diru-sarrera publikoak igotzen ez diren artean, administrazioek orain arte hartutako gastua kontrolatzeko neurriak ez direla nahikoak izango".

Azkenik, gogora ekarri du Nafarroako Gobernuak aurrekontutik aurrezteko hamalau neurri-sorta iragarri dituela, administrazio publikoetako langileei zuzenean eragingo diena, kapitulu horretan 25 milioi euroko aurreztea lortzeko xedearekin. Neurri horietako hamar negoziatziora eraman dira jada Funtzio Publikoko Mahai Orokorrera. Bertan Gobernuak eta sindikatuak esertzen dira, eta Lehendakariak zera ohartarazi du: "Ulertzen dut hartu ditugun neurriak premia hartu behar izanak zuen artean harridura eta kontrakoa jarrera azaltzea, baina neurri horiek negoziatzeko behar adina denbora hartu dugula irizten dut. Kontua da urteko lehen lauhilekoa amaitzeaz dugula, eta ezin dugula jada denbora gehiago itxoin hogeita bost milioi murrizteko helburua lortu nahi badugu".

Afapna sindikatuak bilkura horretan hogeita zortzigarren urteurrena ospatu du, eta bertan Juan Carlos Laboreo hautatu dute berriz sindikatuko lehendakari.